

## ZEURE ENPRESA SORTU

Zeure enpresa sortzeko asmoa baduzu, ondo etorriko zaizu laguntza pixka bat. Zein urrats eman behar dituzun jakin beharko duzu, ideiak beharko dituzu, finantziarioa, bai eta administrazio- eta zuzenbide-orientazioa ere. Baliabide horiek guztiak [Lanbide.net](http://Lanbide.net) web-orrian aurki ditzakezu, bertan autoenpleguarekin lotutako **baliabide ugari** bilduta daude. Zure kontsulta guztiak etxetik, Internet bitartez, egiteko aukera ematen dizu, on-line aholkularitza eta prestakuntza baititu. Foro edo gune birtual bat ere badu, beste enpresa batzuekin harremanetan jarri eta zuen esperientziak partekatzeko.

Horiez gain, baliagarria izango zaizu Industria Sustatzeko eta Eraldatzeko Baltzuak (SPRI) Euskal Herriko Unibertsitatearen, Mondragon Unibertsitatearen eta Deustuko Unibertsitatearen laguntzarekin argitaratu duen [SPRIko ekintzailearen eskuliburua](#) ere. Gida honek enpresa sortzen eta proiektua garatzen lagunduko dizu.

### + ekiteko eskuliburuak;

- "[emancipacionjoven.es](http://emancipacionjoven.es)" dokumentuan
- Donostiako [Sustapenaren](#) ekintzailearen eskuliburua.
- [Confebasken](#) ekintzailearen eskuliburua.

Beste pertsona ekintzaile batzuen esperientziak eta bizipenak ezagutu nahi badituzu, eta hala topa ditzakezun zenbait egoera nolakoak diren jakin nahi baduzu, [Garapen](#) eztabaida-foroa duzu Interneten, Garapenerako Agentzien Euskal Elkartearna.

### Informazio gehiago lor dezakezu zure eskualdeko Garapenerako Agentzian;

- **Donostiako Sustapena:** Ijentea, 6 (Donostia) - Tel: 943 48 15 14
- **Bidasoa Bizirik:** Iparralde, z/g (Donostia) - Tel: 943 63 30 76
- **Oarsoaldea:** Astigarragako Bidea, 2 – Mamut eraik. 2. (Oiartzun) - Tel: 943 49 41 29
- **Urola Kostako Udal Elkartea:** Urdaneta Bidea, 6 (Zarautz) - Tel: 943 89 08 08
- **Tolosaldea Garatzen:** San Esteban, 20 (Tolosa) - Tel: 943 65 45 01
- **Debegesa:** Polígono Azitain, 3 bis (Eibar) - Tel: 943 82 01 10
- **Iraurgi Lantzen:** Aizkibel kalea, 16 (Azkoitia) - Tel: 943 85 11 00
- **Goieki:** Mallutz Industrialdea, 18. pabiloia (Ordizia) - Tel: 943 16 09 70
- **Uggasa:** Plaza Euskadi, 5-2. (Zumarraga) - Tel: 943 72 58 29
- **Debagoieneko Mankomunitatea:** Nafarroa Etorbidea, 23 (Arrasate) - Tel: 943 79 30 90

Eguneratze data: 2010eko Abuztua

## GAZTE EKINTZAILEENTZAKO KREDITUAK

Ekintzaileek gastuei aurre egin ahal diezaieten, asko dira negozio baten lehen urteak finantzatzeko kredituak gehitu dituzten aurrezki-kutxak. Kreditu horiek ondasunak edo beste era bateko higiezinak erosteko maileguak baino onuragarriagoak dira. Gazteek sortutako enpresa bat finantzatzeko, baldintza jakin batzuk bete behar dira: 35 urtetik beherako adina izatea, proiektu bideragarria izatea eta nork bere baliabideak izatea. Gehienek gabe-aldi bat dute, baina oso laburra izaten da, sei hilabetetik urtebetera bitartekoak. Hona hemen era honetako kreditu batzuk:

- "[Credigazte Autoempleo](#)" (Kutxa)
- "[Gaztempresa](#)" (Euskadiko Kutxa)
- [Luzaro](#)

## ENPRESENTZAKO MIKROKREDITUAK

Gazteenei beren enpresak finantzatzen laguntzeko beste formula bat ere badago: kreditu txikiak edo [mikrokredituak](#), eskatzaileen interesentzat onuragarriagoak direnak, baina eskaintzari dagokionez gutxiago. Mailegu hauek zenbateko txikiagoak eskaintzen dituzte, baina baldintza hobeetan.

## LAGUNTZAK ETA DEIALDIAK

Autoenplegurako laguntza-lerro hauek eskuratu ahal izateko, autonomiaerkidegoa bera da banaka eskatzaile bakoitzak bete behar dituen baldintzak ezartzen dituen. Halaz ere, baldintza bat ia guztietan errepikatzen da: diru-laguntzaren onuradunak langabezian edo autonomiaerkidegoko eta estatuko enplegu-zerbitzuetan izena emanda egon behar du, alta izapidetu aurreko epe jakin batean. Diru-laguntza hauek aldatu egiten dira eskualde batetik bestera.

**Euskal Autonomia Erkidegoa:** Euskal Autonomia Erkidegoak 6.000 euroz laguntzen ditu enpresa-proiektu bat abiarazi nahi duten pertsonen ideia ekintzaileak. Eusko Jaurlaritzak baldintza jakin batzuk betetzea eskatzen die eskatzaileei:

- \* Autonomia-esparruko edo estatuko enplegu-zerbitzu batean langabetu gisa gutxienez hiru hilabeteko antzinasunez egona izatea
- \* Enpresa-sustapenari laguntzeko prestakuntza-ekintza bat egin eta gainditzea.
- \* Nork bere lanpostua sortzea barnean hartzen duen jarduera ekonomikoko proiektu bideragarri bat aurkeztea.
- \* Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta dagokion Gizarte

*Eguneratze data: 2010eko Abuztua*

Segurantzako erregimenean alta ematea Euskal Autonomia Erkidegoan. Helbide sozialak eta zerga-helbideak EAEn egon behar dute, bai eta lantokiak ere.

\* Jarduera berriari eskainitako arduraldia erabatekoa izatea.

**Eusko Jaurlaritza**, ikus laguntzak.

Eusko Jaurlaritzak honako bide hauek eskaintzen ditu harremanetarako:

**Arreta zuzena**

**Donostian,**

Andia kalea, 13

**Telefono bidezko arreta**

EAEko administrazioak herritarren eskura jartzen du **012 telefonoa**

**Laguntza + ikusteko:**

- **INEM**: Hiru laguntza mota eskaintzen ditu.

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA** : TXEKIN, TXEKINTEK (Industria alorreko eta oinarri teknologikoa eta/edo berritzailea duten proiektuak) eta EMEKIN (Emakumeek sustatutako enpresa-proiektuak). programak. Tel.: 943 112287

- **KOI**. Kreditu Ofizialeko Institutuak hainbat finantziazio-lerro ditu Espainiako enpresen produkzio-inbertsioak bultzatu eta laguntzeko. Mailegu hauek amortizazio-epe luzeak dituzte, lehentasunezko interes-tipoak eta izapide errazak.

ITURRIAK: LANBIDE, INJUVE, FOMENTO DE SAN SEBASTIAN, CONFEBASK, GARAPEN, Consumer y Enterat.

*Eguneratze data: 2010eko Abuztua*